

Euskararen Plan Estrategikoa 2025-2032



Aurkibidea

Aurkibidea	2
1. SARRERA	3
2. METODOLOGIA	4
2.1. OINARRIA: KEMEN	4
2.2. PROZESUAREN LABURPENA	5
2.3. AURRELANAK	6
2.4. DIAGNOSTIKOA	6
2.5. 2025-2032 PLANAREN DISEINUA	6
3. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZA	8
3.1. KUDEAKETA	8
3.2. ERABILERA: ZERBITZU HIZKUNTZA	11
3.3. ERABILERA: LAN HIZKUNTZA	12
4. 2025-2032 PLAN ESTRATEGIKOA	14
4.1. MISIOA	14
4.2. ERRONKAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOA	14
4.3. URTEZ URTEKO PLANGINTZA	16
4.4. 2025EKO KUDEAKETA PLANA	18

1. SARRERA

Añarbeko Urak, SA sozietate publiko bat da, Añarbeko Uren Mankomunitatea kudeatzen duena. Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Pasaia, Oiartzun, Urnieta, Usurbil, Lezo eta Astigarragako udalerrietan bizi diren 320.963 biztanleei ematen die zerbitzua: edateko ura hornitu eta hondakin-uren saneamendu eta arazketa zerbitzua ematen die altan.

1993. urtean Añarbek eta Energiaren Euskal Erakundeak (Eusko Jaurlaritzaren Energia Agentziak) Gestión de Centrales del Añarbe, S.A. (GECASA) sozietate publikoa eratu zuten sistema hidraulikoen ustiapenetik eratorritako energia sortu eta kudeatzeko. GECASA erabat integratuta dago Añarbeko Urak, SA erakundean. Izan ere, bere langileak bulego berdinetan lan egiten dute, arduradun berberen aurrean erantzuten dute eta lan baldintza berak dituzte. HPSri kontsulta egin ondoren, bi sozietateek (Añarbeko Urak eta GECASA) Euskara Plan berdina izatea ere adostu da.

Añarbeko Urak, SA sozietateak 31 langile ditu gaur egun, eta zerbitzuak emateko merkataritza kontratu bat du ur kudeatzaile den enpresa batekin; honek 84 pertsona ditu lanean Añarben. GECASAk bi langile ditu.

Añarbeko Urak-ek hamar urte baino gehiago daramatza erakundean euskara normalizatzeko pausoak ematen. Hona hemen egindako gertaera nagusiak:

- 2014ko otsaila: Urrats euskaltegiak egindako diagnostikoaren emaitzak Administrazio Kontseiluan aurkezten dira.
- 2014ko urria: Euskara ikastaroen hasiera.
- 2017ko ekaina: Administrazio Kontseiluak **I Euskara Plana** onartzen du 2017-2019 eperako.
- 2017ko iraila: Euskara batzordearen sorrera.
- 2018ko uztaila: Euskara irizpideen onarpena.
- 2018ko uztaila. Administrazio Kontseiluak lanpostuen hizkuntza eskakizunak onartzen ditu. Gaur egun, hizkuntza eskakizunen betetze maila % 73ekoa da.
- 2019ko abendua: Administrazio Kontseiluak **II Euskara Plana** onartzen du 2020-2024 eperako.
- 2020ko azaroa: Euskara irizpideen berrikuspena

Azken urteetan, euskararen erabilera handitzea izan da sozietatearen erronka, eta hurrengo plangintzaldian ere hori izango da, batez ere, helburu nagusia. Era berean, erakunde publikoa den heinean, betebeharra du herritarren eskubideak bermatzeko eta erakunde barruko euskararen erabilera normalizatzeko, eta horretarako, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren arabera, hizkuntza plangintza egin beharra du; hau da, besteak beste, honako hauek prestatu eta onartu behar ditu: Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, Plan Estrategikoak eta Kudeaketa Planak.

Hori guztia kontuan hartuta, Añarbeko Urak-ek, VIII Plangintzaldia amaitu arteko (2025-2032) Euskararen Erabilera Plana diseinatzeko prozesua egin du.

Plana diseinatzeko prozesuak bi zati izan ditu: lehenengoa, diagnostiko bat egitea, Añarbeko Urak-en euskararen egoera zein den jakiteko, eta bigarrena, plana diseinatzea, diagnostikoan oinarrituta. Bai diagnostikoa eta bai diseinua egiteko, Eusko Jaurlaritzaren KEMEN metodologia eta SAREGIN aplikazioa erabili dira, eta prozesu osoa langileen parte hartzean oinarritu da. Baliabide hauek erabili dira, besteak beste, haien ekarpenak eta iritziak jasotzeko: galdetegia, elkarrizketa eta Euskara Batzordea. Aipatu beharra dago garrantzitsua izan dela zuzendaritzaren une oroko bultzada eta parte hartzea, prozesuaren berme gisa jokatu baitu.

Prozesu honen emaitza da Añarbeko Urak-en euskararen erabilera normalizatzeko 2025-2032ko plan estrategikoa. Plan honek hizkuntzaren erabilera areagotzeko erronkak zehazten ditu, baita etorkizunera begira landu beharreko ildoak eta gauzatu beharreko ekintzak ere.

Dokumentu honetan jaso dugu, hain zuzen, plan estrategiko hori diseinatzeko prozesu osoa eta emaitza.

2. METODOLOGIA

2.1. OINARRIA: KEMEN

Sarreran adierazi den moduan, txosten honetan jasotzen den diagnostikoa eta diseinua Eusko Jaurlaritzak VII. Plangintzaldirako proposatutako metodologia eta irizpideak jarraituz gauzatu da eta horren oinarri-oinarrian KEMEN markoa dago.


KEMEN (Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako) Euskararen normalizazio prozesua kudeatzeko gako eta baliabideak ematen dituen sistema integrala da, administrazio alorreko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua modu antolatu eta eraginkorrean kudeatzeko.

Bi ardatz nagusi ditu: kudeaketa eta erabilera, eta hauek dira ezaugarri nagusiak:

- Euskararen erabilera sustatzera bideratutako kudeaketa.
- Planen eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa.
- Erakundeko kargudunen eta arduradunen inplikazio eta lidergoa.
- Zeharkakotasuna erronka gisa.


Sistema honek 2 ardatz, 13 arlo eta 48 adierazle jasotzen ditu. EAEko sektore publikoko erakunde guztiek horietako 14 adierazle neurtu behar dituzte, gainerakoak aukerakoak dira. Hala ere, gomendatzen da diagnostikoa egiteko adierazle guztiak betetzea; hortaz, halaxe egin da Añarbeko Urak-en.

Hona hemen KEMEN markoa osatzen duten 2 ardatzak eta 13 arloak:



2.2. PROZESUAREN LABURPENA

Esan bezala, txosten honetan diagnostikoaren eta diseinuaren emaitzak jaso ditugu. Emaitza hauek, hiru faseko lanketan jaso dira:



2.3. AURRELANAK

Aurrelanen fasean hiru lan nagusi egin dira:

- Elkarriketak egiteko eta galdetegiak betetzeko planifikazio zehatza adostu eta martxan jarri.
- Euskara Batzordea berrantolatu eta lehenengo saioa egin: kideak berrikusi eta egokitzapenen bat egin zen Euskara Batzordean. Urtarrilaren 14an lehenengo bilera bat egin zen Euskara Planaren oinarriak eta dekretuaren gakoak ezagutu ditzaten kokapen gisara.
- Hasierako komunikazioa adostu: langile guztiei emailaz komunikatu zitzairen prozesuaren nondik norakoa.

2.4. DIAGNOSTIKOA

Informazioa kuantitatiboa

GALDETEGIAK

Kudeaketa eta erabilera datuak jasotzeko, bi galdetegi sortu ditu HPSk: bata erakundearena eta bestea langileena. Erakundearen galdetegiaren bidez, kudeaketa arloko adierazleak eskuratu dira nagusiki; langileen galdetegiaren bidez, erabilera arlokoak. Adierazle bakoitzak bere balioa du, eta azken emaitzak Saregin tresnak kalkulatu ditu.

- Erakundearen galdetegi euskara arduradunak bete du Emunen aholkulariaren laguntzarekin, horretarako propio egindako bilera batean.
- Langileen galdetegi Añarbeko Urak-eko langile guztiei bidali zaie eta 31k (%96,8) bete dute.

Informazio kualitatiboa

ELKARRIZKETAK

Emuneko aholkulariak 4 elkarrizketa egin zituen eta honako hauei buruzko informazioa jaso zen, besteak beste: Añarbeko Urak-i buruzko informazio orokorra, zuzendaritzaren funtzionamendua, lantaldeen funtzionamendua, euskararen kudeaketa, presentzia eta erabilera, aurrera begirako lehentasunak, hobetzekoak, egon daitezkeen zailtasunak, eta abar.

Elkarrizketatuak honakoak hauek izan ziren:

- Josean Ercilla (Zuzendari Gerentea).
- Xabier Arzelus (Hornikuntza arloko burua).
- Marco Ortega (Proiektu eta plangintzako zerbitzu burua).
- Ana Sánchez (Idazkaria / Administraria).

DIAGNOSTIKO Kuantitatiboaren kontrastea

Diagnostiko kuantitatiboa egin eta gero, Euskara Batzordearekin saio bat egin zen diagnostikoa kontrastatu eta osatzeko eta planari begirako arlo bakoitzaren lehentasunak eta helburuak zehazteko.

2.5. 2025-2032 PLANAREN DISEINUA

Plan estrategikoa diseinatzeko oinarri hartu dira egindako diagnostiko kuantitatibo eta kualitatiboan jasotako ondorioak, elkarriketetan bildutako ekarpenak, eta Euskara Batzordearen iritzi eta proposamenak.

Planaren erronkak, lan ildoak eta helburuak finkatuta, zirriborro bat sortu da, lehenik eta behin; hori zuzendaritzarekin kontrastatu da, eta zuzendaritzaren ekarpenak jaso eta gero, Euskara Batzordean egin da bigarren kontrastea. Azkeneko kontraste honetan, hobeto osatu da eta gehiago zehaztu da plana.

3. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZA

Galdetegietatik ateratako adierazle guztien emaitzak kontuan hartuta, Añarbeko Urak-en KEMEN markoaren normalizazio mailaren batez bestekoa %44,10 da. Kudeaketaren batez bestekoa %35,09 da eta erabilerarena %48,03. Erabileran badago aldea zerbitzu hizkuntzaren (%78,92) eta lan hizkuntzaren (%34,79) artean. Hainbat arlo indargune gisa baloratu ditzakegu, esate baterako langileak, hizkuntza gaitasuna, irudia, herritarrekiko harremanak eta kanpo harremanak. Hobetzekoen artean aipatu ditzakegu hizkuntza kudeaketa orokorra, barne harremanak, baliabide informatikoak eta sortze hizkuntza.

Galdetegien emaitzekin, BIKAIN ebaluazioan lor litekeen puntuaziora hurbilketa bat egiten da, kontuan hartuta sendotasunaren elementua ez dela neurtzen. Añarbek 441,50 puntu lortuko lituzke. Beraz, BIKAIN ebaluazioaren oinarritzko mailan kokatuko litzateke, erdiko mailatik gertu.

AÑARBEKO URAK 2025-2032 PLAN ESTRATEGIKOA		%44,10	
KUDEAKETA %35,09		1. Euskararen kudeaketa orokorra	%35
		2. Lidergoa	%52,73
		3. Langileak	%60,52
		4. Hizkuntza gaitasuna	%62,54
		5. Euskararen erabilera sustatzeko estrategia	%18,66
		6. Hizkuntza klausulak	%0
ERABILERA %48,03	Zerbitzu hizkuntza %78,92	7. Irudia	%100
		8. Herritarrekiko harremanak	%73,65
	Lan hizkuntza %34,79	9. Barne harremanak	%33
		10. Kanpo harremanak	%62,97
		11. Prestakuntza	%21,39
		12. Baliabide informatikoak	%21,80
		13. Sortze hizkuntza	%28,60

3.1. KUDEAKETA

Hona hemen galdetegietatik ateratako emaitza. Saregin aplikazioaren bidez kalkulatu dira ehunekoak.

1	KUDEAKETA	%35,09
1.0.1	EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	%35
1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	%50
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	%25

1.0.1.3	Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	%0
1.0.2	LIDERGOA	%52,73
1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	%57,80
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	%50
1.0.2.6	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa planetan zehaztutako moduan.	%50
1.0.3	LANGILEAK	%60,52
1.0.3.7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa planei eta hizkuntza irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	%70,20
1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza irizpideak betetzen dituzte	%58,30
1.0.3.9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak	%54,30
1.0.3.10	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan	%52,80
1.0.3.11	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.	%61,31
1.0.4	HIZKUNTZA GAITASUNA	%62,54
1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	%64,50
1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	%50
1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	%75
1.0.5	EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	%18,66
1.0.5.15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes taldeei.	%0
1.0.5.16	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzen du	%62,20
1.0.6	HIZKUNTZA KLAUSULAK	%0
1.0.6.17	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	%0
1.0.6.18	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza klausulak txertatzen dira	%0
1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari	%0
1.0.6.20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	%0

Atal honetan jasotako datuetan ñabardura bat egin beharrean gaude. “Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko” galderak jasotako datua (%50), agian langileek galderaren formulazioarekin izandako nahaste baten ondorio izan daiteke. Erakundean langileek Europako eredu estandarreko mailak erabiltzen baitira (A1, A2, B1, B2, C1, C2) eta galdetegian perfilei buruz galdetzen zen. Ondorioz ez dugu atal hau hobetzeko artean identifikatu.

Hona hemen galdetegien emaitzak oinarri hartuta eta elkarrizketetan eta Euskara Batzordearekin egindako saioen jasotako ekarpenekin osatuta atera diren ondorio azpimarragarrienak, indargune eta zer hobetuetan banatuta:

KUDEAKETA OROKORRA	
Indarguneak	- Euskara Batzordea berregituratu da eta euskararen hirugarren plan estrategikoa diseinatzen ari da. Prozesuaren arduradun bat ere izendatu da. - Hizkuntza irizpideak 2018 zehaztuta eta 2020an berrikusita.
Zer hobetuak	- Hizkuntza irizpideen jarraipena egitea. - Euskara Planaren jarraipena egitea.
LIDERGOA	
Indarguneak	- Zuzendariak parte hartzen du euskara planaren garapenean eta jarrera proaktiboa du helburuak lortzeko. - Sartu berri diren langile guztiekin zuzendariak euskaraz egiten du
Zer hobetuak	
LANGILEAK	
Indarguneak	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.
Zer hobetuak	
HIZKUNTZA GAITASUNA	
Indarguneak	- Lanpostu guztiek dute esleituta hizkuntza-profila, eta gaur egun langileen gehiengoak (%73) dagokion profila betetzen du. - Lanpostuari esleitutako hizkuntza-profila egiaztatetik salbuetsita dauden pertsonen euskara eskoletara joateko aukera eskaintzen zaie lan ordutan, ahal den neurrian esleitutako mailara hurbiltzeko helburuarekin. - Langileen %64k gai dira lanpostuaren funtzioak ahoz euskaraz betetzeko.
Zer hobetuak	Arlo teknikoko gaiak jorratzeko, askok gaztelaniara jotzen dute. Gazteenen artean hori ez da hainbeste gertatzen.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	
Indarguneak	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzen du
Zer hobetuak	- Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia ez die komunikatzen herritar eta gainerako interes taldeei. - Añarbeko Urak-en ibilbide antzekoa egin duen erakunde bat bilatu eta erakundeen arteko bisita bat egin praktika onak partekatzeke.
HIZKUNTZA KLAUSULAK	
Indarguneak	
Zer hobetuak	Hizkuntza klausulak ezarri kontratazioetan.

3.2. ERABILERA: ZERBITZU HIZKUNTZA

Hona hemen galdetegietatik ateratako emaitza. Saregin aplikazioaren bidez kalkulatu dira ehunekoak.

2	ERABILERA	%48,03
2.1	ZERBITZU HIZKUNTZA	%78,92
2.1.1	IRUDIA	%100
2.1.1.21	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	%100
2.1.1.22	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	%100
2.1.1.23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	%100
2.1.1.24	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	%100
2.1.2	HERRITARREKIKO HARREMANAK	%73,65
2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	%49,50
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	%59
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	%75
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	%100
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	%95
2.1.2.30	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	%40,10
2.1.2.31	Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	%25

Jasotako datuetan nabardura bat egin beharrean gaudela uste dugu. Herritarrekiko harremanen inguruan, aipatu da normalean langileek ez dutela herritarrekiko harremanik, harremanak erakundeekin baitituzte langileek (Udalak,...). Horregatik uste dugu agian langileek gaizki interpretatu dutela galdera eta horren ondorioz, langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten dieten galderaren datuak (%49,50) fidagarritasun zalantzak sortzen dizkigu eta ez dugu zer hobetuetan txertatu.

Hona hemen galdetegiaren emaitzak oinarri hartuta eta elkarrizketetan eta Euskara Batzordearekin egindako saioen jasotako ekarpenekin osatuta atera diren ondorio azpimarragarrienak, indargune eta zer hobetuetan banatuta:

IRUDIA	
Indarguneak	Irizpideak betetzen dira eta atal hau indargune garrantzitsutzat jo daiteke.
Zer hobetuak	
HERRITARREKIKO HARREMANAK	
Indarguneak	- Herritarrentzako ekitaldiak euskaraz eskaintzen dira (instalazioetara bisitak) - Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak - Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei euskaraz erantzuten zaie, idatziz

Zer hobetuak	
--------------	--

3.3. ERABILERA: LAN HIZKUNTZA

Hona hemen galdetegietatik ateratako emaitza. Saregin aplikazioaren bidez kalkulatu dira ehunekoak.

2.2	LAN HIZKUNTZA	%34,79
2.2.1	BARNE HARREMANAK	%33,33
2.2.1.32	Lan bilerak euskaraz egiten dira	%20,60
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	%32,60
2.2.1.34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	%37,60
2.2.1.35	Langile guztiei zuzendutako erakunde barruko idatzizko komunikazioak euskaraz egiten dira.	%86,60
2.2.1.36	Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.	%0
2.2.1.37	Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.	%0
2.2.1.38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	%74
2.2.2	KANPO HARREMANAK	%62,97
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	%40,70
2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	%85
2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	%26,70
2.2.2.42	Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	%85
2.2.3	PRESTAKUNTZA	%21,39
2.2.3.43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	%0
2.2.3.44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	%14,20
2.2.3.45	Hizkuntza trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	%75
2.2.4	BALIABIDE INFORMATIKOAK	%21,80
2.2.4.46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	%24,70
2.2.4.47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.	%18,90
2.2.5	SORTZE HIZKUNTZA	%28,60
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	%28,60

Hona hemen galdetegiaren emaitzak oinarri hartuta eta elkarrizketetan eta Euskara Batzordearekin egindako saioen jasotako ekarpenekin osatuta atera diren ondorio azpimarragarrienak, indargune eta zer hobetuetan banatuta:

BARNE HARREMANAK	
Indarguneak	- Erakunde barruko idatzizko lan komunikazioak euskaraz egiten dira. - Erakunde barruko harreman pertsonal batzuk euskaraz izaten dira.
Zer hobetuak	- Lan bilera gehienak (%80) gaztelaniaz egiten dira. - Langileen arteko harremanetan euskararen erabilera handitzea.

KANPO HARREMANAK	
Indarguneak	Sektore publikoko eta pribatuko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak %85ean.
Zer hobetuak	Enpresa pribatuekin ahozko harremana nagusiki gaztelaniaz da (%75 inguru).
PRESTAKUNTZA	
Indarguneak	Hizkuntza trebakuntza eskaintzen zaie langileei
Zer hobetuak	- Eskaintzen diren euskara eskolen planteamendua berrikusi behar da. - Oso teknikoak diren gai askotan zailtasunak daude laneko prestakuntza euskaraz aurkitzeko.
BALIABIDE INFORMATIKOAK	
Indarguneak	
Zer hobetuak	Baliabide informatikoen erabilera nagusiki gaztelaniaz.
SORTZE HIZKUNTZA	
Indarguneak	
Zer hobetuak	- Nagusiki dokumentuak gaztelaniaz sortzen dira, eta euskaraz edo ele bietan behar badira, gero itzultzen dira. - Euskara sortze-hizkuntza gisa pixkanaka areagotzearen bideragarritasuna baloratzea.

4. 2025-2032 PLAN ESTRATEGIKOA

4.1. MISIOA

Añarbeko Urak-en euskararen erabilera normalizatze eta legedia betetze bidean, kanpo harremanetan euskarazko zerbitzua epe ertain batera bermatu eta barneko eguneroko erabilera handitu, euskaraz lan egiteko guneak zabalduz. Horretarako prozesu komunikatiboen efikazia bermatzeko baliabideak eskainiko ditugu, langileria hizkuntza ohiturak aldatzera animatuko dugu eta hizkuntzaren kudeaketaren jarraipena egingo dugu.

Horrekin lortuko da gizarteak Añarbeko Urak erakunde euskaldun gisa hautamatea.

4.2. ERRONKAK ETA HELBURU ESTRATEGIKOA

Arloz arloko analisia egin ondoren, epealdi berrirako misiora gerturatzeko honako erronka eta helburu estrategikoak zehaztu dira:

Erronkak	Helburuak
Euskara planaren kudeaketaren jarraipena egitea	• Euskara Planaren kudeaketa sistema sendotu. • Hizkuntza irizpideak berrikusi eta jarraipen sistema zehaztu betearazteko. • Beste erakundeetako praktikak ezagutu eta aplikagarritasuna aztertu Añarbeko Urak-en. • BIKAIN ziurtagiriaren ebaluazioa jaso. • Arduradunen lidergoa eta eredugarritasuna sustatu Euskara Planean. • Kontratazio berrietan lanpostuetako hizkuntza eskakizunak bete. • Langileek lanean euskara erabiltzeko duten gaitasuna handitu. • Euskararen erabilera sustatzeko egiten den lana komunikatu interes taldeei (barnekoak eta kanpokoak). • Hizkuntza klausulak ezarri kontratazioetan.
Euskararen presentzia eta erabilera bermatzea ematen den zerbitzuan eta irudian.	• Añarbeko Urak-en irudizko elementuetan euskararen erabilera lehenestea. • Herritarrekiko harremanetan euskarazko eskaintza bermatu. • Sektore publikoko erakundeekin (zerbitzua ematen zaien Udalak) euskarazko harremanak bermatzeko pausoak eman.
	• Hizkuntza ohiturak aldatzeko dinamikak sustatu (Euskaraldia, Eusle, Ulerrizketak...).

Euskaraz lan egiten duten guneak sustatzea.	• Langileek euskararekiko duten sentsibilizazioa eta motibazioa areagotu. • Lan bileretan euskararen erabilera handitzea • Enpresa pribatuekiko harremanak euskaraz izan daitezen sustatu. • Langileek euskararen ulermena bermatuta izatea. • Langileek lana euskaraz egin dezaten trebakuntza eskaintzea. • Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea sustatzea. • Euskarazko sortze hizkuntza sustatu.
--	---

4.3. URTEZ URTEKO PLANGINTZA

ERRONKA ETA HELBURUAK	Arduraduna	KRONOGRAMA								ADIERAZLEAK	
		25	26	27	28	29	30	31	32	Egoera	Aurrei.
1. KUDEAKETA: Euskara Planaren kudeaketaren jarraipena egitea										%44,10	%86,70
1.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA										%35	%85
1.1.1 Euskara planaren kudeaketa sistema sendotu.	Zuzendaritza	x	x	x	x	x	x	x	x		
1.1.2 Hizkuntza irizpideak berrikusi eta jarraipen sistema zehaztu betearazteko.	Zuzendaritza eta Euskara Batzordea	x	x		x		x		x		
1.1.3 Beste erakundeetako praktikak ezagutu eta aplikagarritasuna aztertu Añarbeko Urak-en.	Euskara Batzordea	x	x	x	x	x	x	x	x		
1.1.4. Bikain ziurtagiriaren ebaluazioa jasotzea	Zuzendaritza eta Euskara Batzordea			x	x						
1.2 LIDERGOA										%52,73	%66,50
1.2.1 Arduradunen lidergoa eta eredugarritasuna sustatu Euskara Planean.	Zuzendaritza	x	x	x	x	x	x	x	x		
1.3 LANGILEAK										%60,52	%96
1.3.1 Kontratazio berrietan lanpostuetako hizkuntza eskakizunak bete.	Zuzendaritza	x	x	x	x	x	x	x	x		
1.4 HIZKUNTZA GAITASUNA										%62,54	%75
1.4.1 Langileek lanean euskara erabiltzeko duten gaitasuna handitu. (ikastaroak, pilulak)	Euskara Batzordea	x	x	x	x	x	x	x	x		
1.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA										%18,66	%92,50

1.5.1 Euskararen erabilera sustatzeko egiten den lana komunikatu interes taldeei (barnekoak eta kanpokoak).	Komunikazioa	x	x	x	x	x	x	x	x		
1.6 HIZKUNTZA KLAUSULAK										%0	%100
1.6.1 Hizkuntza klausulak ezarri kontratazioetan.	Zuzendaritza	x	x	x	x	x	x	x	x		
2. ERABILERA										%48,03	%57,97
ZERBITZU HIZKUNTZA: Euskararen presentzia eta erabilera bermatzea Añarbeko Urak-ek ematen duen zerbitzuan eta irudian.										%78,92	%95,20
2.1.1 IRUDIA										%100	%100
2.1.1.1 Añarbeko Urak-en irudizko elementuetan euskararen erabilera lehenestea. (argitalpenak, publizitatea, agerraldiak, webgunea eta sare sozialak...)	Komunikazioa	x	x	x	x	x	x	x	x		
2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK										%73,65	%94
2.1.2.1 Herritarrekiko harremanetan euskarazko eskaintza bermatu	Komunikazioa	x	x	x	x	x	x	x	x		
2.1.2.2 Sektore publikoko erakundeekin (zerbitzua ematen zaien udalak) euskarazko harremanak bermatzeko pausoak eman.	Zuzendaritza	x	x	x	x	x	x	x	x		
2.2 LAN HIZKUNTZA: Añarbeko Urak-en euskaraz lan egiten duten guneak sustatu.										%34,79	%42,01
2.2.1 BARNE HARREMANAK										%33,33	%40,25
2.2.1.1 Hizkuntza ohiturak aldatzeko dinamikak sustatu (Euskaraldia, Eusle, Ulerrizketak...).	Euskara Batzordea	x	x	x	x	x	x	x	x		
2.2.1.2 Langileek euskararekiko duten sentsibilizazioa eta motibazioa areagotu.	Euskara Batzordea	x	x	x	x	x	x	x	x		
2.2.1.3 Lan bileretan euskararen erabilera handitzea	Zuzendaritza	x	x	x	x	x	x	x	x		
2.2.2 KANPO HARREMANAK										%62,97	%71,05
2.2.2.1 Enpresa pribatuekiko harremanak euskaraz izan daitezen sustatu.	Euskara Batzordea		x		x		x		x		
2.2.3 PRESTAKUNTZA										%21,39	%25,65

2.2.3.1 Langileek euskararen ulermena bermatuta izatea.	Zuzendaritza	x	x								
2.2.3.2 Euskaraz lan egiteko aukerak handitzeko prestakuntza ikastaroak eskaintzea.	Zuzendaritza	x	x	x	x	x	x	x	x		
2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK										%21,80	%32,50
2.2.4.1 Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea sustatzea.	Teknologia eta berrikuntza arlo burua Euskara Batzordea	x	x		x		x		x		
2.2.5 SORTZE HIZKUNTZA										%28,60	%35
2.2.5.1 Euskarazko sortze hizkuntza sustatu.	Euskara Batzordea		x	x	x	x	x	x	x		

4.4. 2025EKO KUDEAKETA PLANA

1. ERRONKA, KUDEAKETA: Euskara Planaren kudeaketaren jarraipena egitea			
Helburua	Ekintza	Arduraduna	Noiz
1.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA			
1.1.1 Euskara planaren kudeaketa sistema sendotu.	Euskara Batzordearen bilerak hilean behin egin	Euskara Batzordea	Hilero
	Euskara Planeko jarraipena egin zuzendaritzan edo arloen arteko batzordean	Zuzendaritza	Urtean bi aldiz
1.1.2 Hizkuntza irizpideak berrikusi eta jarraipen sistema zehaztu betearazteko.	Hizkuntza irizpideen berrikuspena egin.	Euskara Batzordea / Zuzendaritza	Maiatza
	Zuzendaritzan onartu.	Zuzendaritza	Maiatza
	Hizkuntza irizpideen jarraipen sistema zehaztu.	Euskara Batzordea / Zuzendaritza	Maiatza
	Euskara Batzordeak beste erakunde batera bisita egin.	Euskara Batzordea	Abendurako

1.1.3	Beste erakundeetako praktikak ezagutu eta aplikagarritasuna aztertu Añarbeko Urak-en.	Euskara Batzordera beste erakunde batzuetako praktikak eraman.	Euskara Batzordea	Bi hilero
1.2 LIDERGOA				
1.2.1	Arduradunen lidergoa eta eredugarritasuna sustatu Euskara Planean.	Hizkuntza irizpideak arlo buru bakoitzak bere arloan zabaldu.	Zuzendaritza	Ekaina
1.3 LANGILEAK				
1.3.1	Lanpostuetako hizkuntza eskakizunak berrikusi eta onartu.	Lanpostuetako hizkuntza eskakizunak berrikusi eta onartu.	Zuzendaritza	Ekaina
1.3.2	Kontratazio berrietan lanpostuetako hizkuntza eskakizunak bete.	Egiten diren kontratazio berrietan lanpostuetako hizkuntza eskakizuna eskatu.	Zuzendaritza	Abendurako
1.4 HIZKUNTZA GAITASUNA				
1.4.1	Langileek lanean euskara erabiltzeko duten gaitasuna handitu. (ikastaroak, pilulak)	Eskaintzen diren euskara eskolen planteamendua berrikusi.	Euskara Batzordea	Maiatza
		Formazio beharrak identifikatzeko galdetegia bidali langileei.	Euskara Batzordea	Maiatza
		Trebakuntza pilulak zabaldu eta bukaeran errepasorako azterlehiaketa egin. 20 pilula	Euskara Batzordea	Abendurako
		Ikastaro laburrak egiteko aukera aztertu.	Euskara Batzordea	Abendurako
1.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA				
1.5.1	Euskararen erabilera sustatzeko egiten den lana	Euskara Planaren helburu eta emaitzen berri eman erakundeko langileei.	Zuzendaritza	Apirila-maiatza
		Euskara Planaren helburu eta emaitzen berri eman Udalei.	Komunikazioa	Maiatza

komunikatu interes taldeei (barnekoak eta kanpokoak). (harrera kontuan hartu)	Web gunean Euskara Planaren inguruko informazioa txertatu.	Komunikazioa	Ekaina
1.6 HIZKUNTZA KLAUSULAK			
1.6.1 Hizkuntza klausulak ezarri kontratazioetan.	Lizitazioetan jarri beharreko hizkuntza klausulak zehaztu.	Zuzendaritza	Apirila
	Hizkuntza klausulen jarraipen sistema adostu.	Zuzendaritza	Apirila

2. ERRONKA, ERABILERA			
Helburua	Ekintza	Arduraduna	Noiz
2.1 ZERBITZU HIZKUNTZA			
2.1.1 IRUDIA			
2.1.1.1 Añarbeko Urak-en irudizko elementuetan euskararen erabilera lehenestea. (argitalpenak, publizitatea, agerraldiak, webgunea eta sare sozialak...)	Argitalpen, publizitate, webgune eta sare sozialetan euskararen erabilera lehenestea.	Komunikazioa	Abendurako
	Agerraldi publikoen antolaketan euskararen erabilera bermatzeko aurreikuspena egin.	Komunikazioa	Abendurako
2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK			
2.1.2.1 Herritarrekiko harremanetan euskarazko eskaintza bermatu.	Bisitetan ahoz eta idatziz euskararen erabilera bermatu.	Komunikazioa	Abendurako
	Euskarazko eskaerari euskaraz erantzutea bermatu.	Komunikazioa	Abendurako

2.1.2.2 Sektore publikoko erakundeekin (zerbitzua ematen zaien udalak) euskarazko harremanak bermatzeko pausoak eman. (eskaintza aktiboa egin).	Bezeroekiko dauden irizpideak eragiten dieten langileei komunikatu.	Zuzendaritza	Maiatza
2.2 LAN HIZKUNTZA			
2.2.1 BARNE HARREMANAK			
2.2.1.1 Hizkuntza ohiturak aldatzeko dinamikak sustatu (Euskaraldia, Eusle, Ulerrizketak...).	Euskaraldian izena eman eta ariketan parte hartu.	Euskara Batzordea	Maiatza
	Eusle dinamika lan talde batean martxan jarri.	Euskara Batzordea	Iraila
2.2.1.2 Langileek euskararekiko duten sentsibilizazioa eta motibazioa areagotu.	Lehiaketa bat antolatu.	Euskara Batzordea	Maiatza
2.2.1.3 Lan bileretan euskararen erabilera handitzea.	Barne bileren diagnostikoa egin.	Euskara Batzordea	Uztaila
2.2.2 KANPO HARREMANAK			
2.2.2.1 Enpresa pribatuekiko harremanak euskaraz izan daitezen sustatu.			
2.2.3 PRESTAKUNTZA			

2.2.3.1 Langileek euskararen ulermena bermatuta izatea.	Ulersaioak antolatu.	Zuzendaritza	Iraila
2.2.3.2 Langileek lana euskaraz egin dezaten trebakuntza eskaintzea.	Langileen beharren arabera antolatu euskara eskolak.	Zuzendaritza	Iraila
2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK			
2.2.4.1 Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzea sustatzea.	Kanpaina bat egin baliabide informatikoak euskaraz jartzeko.	Euskara Batzordea	Maiatza
2.2.5 SORTZE HIZKUNTZA			
2.2.5.1 Euskarazko sortze hizkuntza sustatu.			

5. ADIERAZLEEN JARRAIPENA

Derrigorrezko 14 adierazleen jarraipena egingo da.

1. ardatza: KUDEAKETA % 35

1.0.1 arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA		
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	% 20 E2
1.0.2 arloa: LIDERGOA		
1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	% 20 E.4.1 E.4.2 E4.3
1.0.2.5	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezzen.	% 25 E5
1.0.3 arloa: LANGILEAK		
1.0.3.8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	% 25 L2
1.0.6 arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK		
1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 10 E13

2. ardatza: ERABILERA % 65

2.1. EREMUA: ZERBITZU-HIZKUNTZA (erabileraren % 30)

2.1.2 arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK		
2.1.2.25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	% 20 L8
2.1.2.26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	% 30 L9.1 L9.2
2.1.2.27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	% 20 E19.1 E19.2
2.1.2.28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 15 E20
2.1.2.29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	% 15 E21

2.2 EREMUA: LAN-HIZKUNTZA (erabileraren % 70)

2.2.1 arloa: BARNE-HARREMANAK			
2.2.1.33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	% 35	L13
2.2.1.35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	% 25	L15
2.2.2 arloa: KANPO-HARREMANAK			
2.2.2.40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 15	E26
2.2.5 arloa: SORTZE-HIZKUNTZA			
2.2.5.48	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	% 25	L22